

JEUURT!

Bertoko errebisti - 6. zk. 1998ko iraila



JOSI MARI LANEAH DAGOELA, TEL- FONDA HASTEN DA JOTEN.



LANA UTZI ETA AZKAR DOA DEIA JASOTZERA.




BAIYA, IAISTEN DENERARO ISILDUTA DAGO



ETKETIK IRTEH ETA BERRIALI BERRIZ KASTEN DA JOTEN.



BIZKOR DOA BURE JOSI MARI BERRIRO JASOTZERA.



ORAIN ERE BERTIN. ATETIK SARTU DENERA ISILDU EGIN ZAIO.



ORAINGO HONETAN ITXOITEA ERABAKI DU.




ITXOITEN ASPERTU OMOZKEN, SOLDRA JOAN ETA BATERA...



GLORIE GIZONA HON DOA OSO HASERAK.



HELDU ETA BATERA BERRIZ ISILDU ZAIO ETA... LASTER KOMPONTEK DU ARAZO, AINAN GABE, HONEN ATZEA...



... HERRIKO ADARJOTZALEK HONETENA DAGOELA, BERE "MOBILAI" BERRI FROBATZEN.

S. Karmelo Garibetxea

Lea erreka

Gure herri txikien artean lotura asko izan daitezke, baina elementu bat dago gure elkartasunari izena ematen diona, elementu hau Lea ibaia dugu. Ibai honek eta bere errekaetok, gure herri guztiak zeharkatzen dituzte, gure lur, baso eta zelaiak bizitasunez janzten dituztelarik. Ibai, ibaiadarrok eta bertun daruman ura, gure elkartearen zainak eta odola izango balira lez.

Lea Ibaia Oiz mendiatan maldietan jaiotzen da, Marroixo erreka deiturako duen errekaetokan, eta Lekuñon. Gauratz ibaiaren aurretan, bukatzen du bere ibilbidea. Eisan behar jaiotzen den puntutik eta hiltzen den puntu-raino 24 kilometrotako ibilbidea egiten duela, baina duen luzera ozeorra (ibai nagusiaren luzera, gehi erreka guztien luzera) 125 kilometrotakoa da.

Ibaiaren ibilbidea, hurrengo lau azaletan hasaratu dezakegu:

Lehen azala, bere hasierako ibilbidea izango dugu. Oiz mendian sortzen da 1000 metro inguruko altueran, eta lehen lau kilometroetan 1000 metroak 200 metroaraino baxutzen da. Honen ondorioz urak oso azkarrak dira eta honela heltzen da Muntibarrera, beste hainbat errekaetatik urak hartuz. Oizko Erreka dertzoguna esaten dielarik.

Bigarren zatit batean, Muntibarreko lurraldean zeharkatzen du eta Aulestira heltzen da, hemen, ezkerretatik. Lekerika Usaogako errekaetokako urak jasotzen ditu. Eskualdetik berriaz Maso-Urio errekaetokan urekin bat egiten du.

Hirugarren gunea Aulestitik eta Gizaburuagara doan da, gune honetan arau estu baten tartetik

doa eta solik Runtzar eta Bedarzandi mendietan jasotako sturbunetako urak jasotzen ditu.

Laugarren eta azken zatia, Gizaburuagatik eta Lekuñora doana dugu, Gizaburuaga igaro ondoren, Amoroitoko lurraldean sartzen gara eta lotralde honetan, ibaiaren eskualdetik, Babolao erreka ikuriko ditzkie bere urak. Lekuñorako bidean, Ugaran auzoan, Lea ibaiak bat egiten du bere ibaiadar urtsuenarekin, Zulueta izakiaz ibaitularra. Erreka hau Amoroito eta Berritatuako arau estuetatik datorrena dugu.

Geratzen den gunea, Mendexako lurraldean sartuta, Ugaran eta Lekuñon tartekoa, itsasoko urak hiru kilometroaraino sartzen dira, itsasoko urarekin ere eragina duelarik.

Ibilbide guzti honetan, gure ibaiaren uren baxerik bizirik motu asko aurki daitezke, bai landare, bai intsektu edo baita ere oskoldun eta arrain mota batzuk ikusi daitezke. Lerro hauekin azken laurri hurrez azalpen batzuk egitera geroz.

Oskoldun bezala, gure ibaiaren errekaetok kangrejota ezagutzen dugu, esan behar animalia hau ez dagoela bere garairik onenean, zeren orain dela hogeiren bat urte inguru, ur hauek oso aberatsak ziren kangrejotan, baina orain, ordea, oso zaila da kangrejoren bat ere ikustea. Inoiz entzun izan



dugu gure zaharengandik nola orain arte asko, ez zela oso zaila izaten uretan balde bar sartu ezker, ura jasotzerakoan bertatik, ontziaren normalean kan-gejoretan, bai edo beste ere jasotzea.

Bestalde, gure ur hauetan gehienbat aurkitu daitezkeen arrainak dira amoarrainak, eskaloak, aingirak, lotzak eta izokinak.

Amoarrain edo arrainkariak era bitakoa bizi dira gure uretan, hain da amoarrain arruata,

jatorriz bertokoa, eta bestea da ortzadar amoarraina, haztegitan sortutakoa eta Bizkaiko Foru Aldundiak zabaltzen duena. arrantzaleek euren zale-tasunari jarrai diezaioten ekosistemari kalte handirik egin gabe. Munitibar eta Aulesti tar-tean mota bietako amoarrainak bizi dira. Aulestitik auzera soilik ortzadar amoarraina aurkitu daiteke.

Eskaloak arrain txikiak izanik, ibai osuan zehar aurkitzen dira. Lotza ostera oso arrain

urria da eta soilik Munitibar eta Aulesti tar-tean aurkitu daitezke.

Aingirak ere ibaiaren gune guzietan daude, hain animalia himen kumea, hain estuata den angula, bakarririk azken hiru kilometroetan dago eta ordu askotako arrantza egin behar da zerhait lortzeko.


Lehen aipatutako beste bizidun mota batzuk intsektuak dira. Ibaiaren lehen kilometroetan aurki daitezkeen intsektu motak, ur garbiak diela adierazten dizkigute, tamalez intsektu hauek gutxitzen joaten dira ibaiak auzera egin alaba, urak zikinzen doazela adieraziz. Azkenik, iristen gara Lekeitiko «depuradoraraino», eta puntu horretatik auzera, arrantzaleak ere kezkatuta daude zeren «depuradora» hau martxan jarri denetik ez omen daude arrantzarako kokarrik ere aurkitzen.

Bukatzeko, aipatu behar da historian gure ibaiak nola lagundu izan dien gure arbasoen, zeren hainbat errota eta burdinola zenden ibaiaren inguruetan eta uraren indarrari esker mugitzen zituzten erroterriak eta burdinguntzarako tresneria.

Oraingik, gaur egun ere, ikus ditzakega errota gutxi batzuk garai hobeen nostalgiaz Iba ibaiari begira.

Jose Karmelo Goikoetxea

ARRIAGA



• **ARRI-**, **-AGA**, Harrilekua.

Sei armarrri ezberdin dagoz, eta hemen azaltzen doguna Errigoitikoa da. Arrasaten eta Araban be bardina aurkitzen dalarik.

Bi zati ditu: lehenengoa ziderrezkoa, haritz berde eta basurde baltzagaz, bigarrena azula, urrezko lore eta izarrekin.


Fausto Antonio Arriaga, durangarra, Euskal Herriko paper industriaren aintzindarietako bat. 1780an Berrizko burdinola batean estrazazko papera egiteko lehenengo fabrika martxan ipini eban. Eta **M. Jesus Arriaga** bere alabak

asmatu eban perfekzio handiz papera egiteko moldea. Ziderrezko domina edo medaila bategaz izan zan saritua.

Juan Krisostomo Arriaga, konposatzailea, Bilbon jaio zan 1806an. Musika artista handia izan zan. Hamaika urtegaz egin eban bere lehenengo obra eta hamalaurako opera ikusgarria idatzita eukan. Gero Parisera joan zan bibolina eta konposizioa hobeto ikastera.

Hiri horretan zegoela konposatu zituen kuarteto batzuk, Beethovenek berak be adin horregaz idatzi ez zituen modukoak. Hogei urte ebazala hil zan Parisen eta Mozart legez kanposantuko hilobi komunean enterratu eban.

BELAUSTEGI



• **BELAUN-**, **-TEGI**.

«Belaun» hau «belar» eta «une»tik dator eta «bedar lekua» esan nahi dau baina badirudi beste batzutan baita «bidegurutzeta» be esan nahi izan dabela.

Armarriaren koloreak: urrea, txirla edo antzekoak gorriak, ilargi azula, hegal azula, ziderrezko izarrak.

Esaldi hau daroa: Egija adimen argi bijotzak maite begi. Letrak gorritz eta bolantea urrez.

Frantzisko Belaustegi, durangar idazlea, 1869an jaioa. «Tabira» edo Belaustegi'tar Panteska izenez be ezagutua.

Bizkaieraz idatzi zituen lan labur batzuk: «Zugatza», «Gaizkane»... eta aldizkari eta egunkari askotan be bai.

Petra Belaustegi, euskal idazlea. «Euskalerrria» aldizkarian kolaboratzen eban eta 1909an saria jaso eban «Ametsa» ipuinagaitik.

ERKIAGA



• **ERKI-**, **-AGA**.

Erki hori ezki izan leike, erderazko «tilo». Orduan ezki-lekua esan nahiko leuke. Gizaburuaga eta Amorotoko abizena da. Armarrri bi dagoz. Bata: ziderra, zuhaitz berdea, izar urdinak, arbolaren gainekoak baltzak, ur azula eta ziderrezkoa. Hegala urre eta gorri koloretakoa. Bestea: urrea, dorre gorria, urrezko soldadua.

Eusebio Erkiaga Alastra, «Endaitz», 1912an Lekeitioan jaio zan idazlea. Hainbat aldizkaritan argitaratu ditu lanak eta euskaltzain osoa

izan zan 1963tik 1993ko maiatzaren 31an hil zan arte. Bere obra nagusiak: «Arranegi», «Araibar zalduna», eta «Batetik bestera» eleberriak; «Nekazariarena», «Azkueren heriotzan», «Axular handiari» eta «Lora gorriak» olerkiak; «Antzerti jayan izan naiz» eta «Sinisogorra», «Kanpaien atsekabez» antzerkiak; «Aspaldiko Maigret» eta «Parmenides» itzulpenak.

Martin Erkiaga Lekube, Mutriku jaiotako mintzalari sozialista. Eibarren bizi zan eta bertako «Gizarte Erreformatak» taldeko juntakoa zan. Bilbon hil zan 1936an.

T. Mallea

Auñamendi Enziklopediatik euskaratua

MENDEXAR BAT ZERUKO ARGIAN

ZERUKO ARGIA

Jose Txakartegi Zendoia, Sanjosea haserriko mendexarrik, orain bageztrahi arte Zeruko Argia aldizkariako idazten eban.

Aitzitik gora aurretik hartzen eban aldizkari hau. Hilean behin utiten eban eta kanporatzen eban. Josek he irakurtean eban. Pentsatu be ez, ez egiteak. Han herri txakartegi albisteak etortzen ziren eta Josek inbidia sentu jakota, izagun eban Basarriari, «Nere Bortaxorik» egiten ebanari, deitu eutsen bere asma erakutsiz. Honek baitetz esan eutsen, ez zergatik ez eta. Baina Josek baiken arazo bat, «s» eta «z», (orduan «s»ari ez eutsen kasurik egiten), ez ekitea kan ipint. Laster konpondu eban. Basarrik herak zuzenduko eutsozela eta balduko ebate baldi behar zana aldizkariara. Halitxak hartu eban here partaidetza.

Zeruko Argian 1960. urteak 1975.era arte idatzi eban. Gero erdi liburu bihurtu eban, eta orduan izi eutsen parte hartzeari. Bitarte heretan asko denu eutsen, handik eta herendix, idazlea zelokuan adibidez Jakin alerzkanako Juan Mari Torrealdaiak.

Bueno, eta sasoi heretan zelat erorken gure idazleak hain gar sutsua, eta zelan ikasi eban euske (ez alazien?), za Franco he nan zan, eta euskera eta zaleak zapalduta euzen.

Bere aitzitxarengandik jaroko euskaltzalasuna eta euskera aurretia eramateko grua. Euskaltzale sutsua berau, makina bat bider erregatu et eban «hermana» eta antzeko herbarrik entzunak. Irakurten be baiken eta heretolari ditorea be ei zan. Arto-zuritzua eta

egiten ebanian, logurak ereta eguten ziranian, aitzitza heretotan hasten jaken eta akabo logura guztiak. Bere heretotarik biz gortutaten da Jose, zutiren hat ahazta bajeko be.

*España da
behi nabar argal, heze
Euskal Herrian autoren ta
Madrilen bere erropie
honen mantentuta
hau kezzen deute
daukan esne guztiye.
Alper-alperrik
gure ahalegurek
kentzen az baldutzen arkie.*

*Erbestetarrak hana sartuta
dirala agutzen jarriak
ostikopian zapaldu dabek
egitako eskubiak
stardu eta zaitk ba dauak
bertele egin da guziak*

Pera bat dauko Josek, aitzitza guzterik hil beharia (72 urtegar) Berau ordian guzletxua zan eta gauza guztiak ezin ba heren hartu, gora heste aitura heratu be hai eta. «Gaur egua bizi izan balitz gozatu et eban

Halan eta be zalestun ederra irxi eutsen Josek. Han handia ze haxe zala eta ikas eban euskera idazten. Topatzen eban heretotapaper guztiak erosten eban eta heren herak zelan idazten eban konaratu ikas eban; hain egutegi utzeko ipuneratik be.

Pasatu modura bi heretaz gomutatzen da.

Behin, Mendexako abade zan Juan Mari Garateak kejak euki ei eban Lekitxoka abadeengandik eta kendu egin ei eban herriko

parrokiatik. Josek, aldizkari idatzi eban ba zelan heretar guztiak eta konforme badagoz abadearekin ea zertarako kendu behar eban eta. Hauxe idatzi ebalako herabete herretako aldizkaria «sekuestra» egin eutsen.

Beste behin herak idatzitako pasadixo batzuk, handik arte heretotara egutegi baten agertu ei ziren. Honek ziren:

«Mendexako Algorta heretan baten hat gaxorik euen eta medika etorren. Etze eulora ailegatuaz jorela Etorri-Barri hergua ikusi eban heretotara eta tentate nabarik:

«Hergaren faltak, morteruk tago».

Bai eta besteak be arn usko:

«Medikuenak heriz, atzetak eta pelik»

«Etorri-Barri konposantuko herma konposant eultran hergia herari:

«Alperriko herarrak euzen zabize ha»

«Zer ha?»

«Ba, heren dauzenak ezin dabu urten, eta kanpur gozenok euzen sara nazi».

Etorri Barri roizean behin deskuilatu egiten ei zan edareekin eta Barri Sartzu baten erdi balantzaka ei etorren etxeratziz. Abadea sietatu eta esan ei eutsen:

«Gurko eguez eta balantzaka».

«Jana, pilagru da ba, hergaita be h izen hada, gizona balantzaka ibiltzea».

Jone Laku

BASERRITIK BIZI IZATEAREN MERITUA

Klaudia Goikoetxea eta Jesus Zabala baserrian jaio eta hazi dira biak. Baserritik bizi eta alabak bazi. Eta jubilatziotik urre dagozen honetan be jo eta su barrapatu doguz beharrean Gizahurtuagako Goikoetxien Ganadua eta sagarra da eturen produktzio nagusia. Euren egunerokoz eta baserriko bizimoduaz egin dogu berba. Izan be, ez da eturen imzeko asko geratzen lea-labarrean, baserritik oso-osorik bizi direnak.

Zuek biak baserrian egin dozue beharra beti, ezia?

Jesus- Nik egin neban urte 1'erri edo tailer baten baita, horik murrera ben baserriak bizi izan gura.

Klaudia- Jaio eta hazi.

Inoiz dantatu jator baserriak bizitzed?

J- Dantatu dantatu ez.

K- Pusetan dantatu da jubilatzioko eliseatik, gok egu bagendin horrenbeste arte fabrika baten asko, berritu gahiago ezonzo zela.

J- Baserria lotua bada, berru beste behar bat iz, gurean egu behar da. Gurea da bizimodu ataratea. Lehen hori gitarra ikusi n zan, beharginal ez ezuzan hainbeste alde kentzen... Bizimodu atarako balitz, nahi eta lotua izan, da, guretan joko na baserrian pozik biziko litzake. Behintzen ploi haren zaramaka sueldu bat atarazeko garantia balego, nik pentsetan dot egongo litzakela jente gehiago baserrian beharrean.

Eta holako sueldo bat baserritik ataratea bai dela gurea...



J- Orain dagozen espezializazio, egu beharko litzake inbertitxo handi bat, nondik jokoan behar dagan argi jakin... Inbertitxo beharrik millonatu bat!

Zuek zuek Goikoetxe baserrian zertara dediketari zaree gehien bat?

K- Leuen-leuen ganadua. Etxera eta okelara bietara. Gurea fruitu eta indiarra eta arditu batzuk esnetarako eta bildorvitarako. Ortuari askorik ez, ze ganadua k betak eskutzen deitxu dazpora asko. Lehen ganaduen

be erretarazoa zan. Orain ipintzen dantatue: honenbeste proteina, honenbeste koipe, bakteriologia badiakozu bagen amakazu... Eto txalakin be berru, lehen baina gehiago kezaten da hurrea dagozen baldintzekin

Zer da hoba, gauza baten espezializatea, ala nahi eta nahi ez hemen dagozen terrenoeekin eta, dantarik egin behar dozu

K- Baserri txakio daukonak dantetatik egin beharko dau...

J- Baina dantetik egin etken iguati arte susem batzutan da-

netan ibili behar zara batera, eta plazara jau. Hori izaten da arazoa. Plazara jau behar baduzu e, zagoz beharrezkoak. Igual gaurta batera bediketea izango da hobea. Orain familiak ez dira azarrik eta mail gazte batek edo bik hartzen badabe baserria ganadua ipinteko, badaoz laguntzak eta .. ganadua bakarrak nahika behar erriko dabe espio-tazina handi samarra ipini beharke dabe eta. Gero kuota eskatu beharke dabe.

Zelan dago orain kontu asuntan hari?

J- Guk ia 200 litro atara gein-kez, baina harik pasetan bagarri, hari ez dabe pageten. Alperrik egiten dozu beharra... Gonalura dedikat nahi baduzu, ekuak behar dozu kuota eta korretarako laguntzen deutzat, "ce-son de actividad" edo hari egiten dabenari kontzen deutzatna horretan ematen akaleginda. Baina hari zuzen zuzen ez dago kontrolapua. Askotan pasatu da kuota gehiago beharke ebanari gitzago emon jakola... Orain arte aste dot Beyena nahika ondo postatu dala horregaz, baina orain kontrolatu egingo dabe. Beyenak egiten izan du beren bezeren kuota globala koadra-u. Eta bezero batek lar solda bode-ntso gitzago saldu deutzon bezeraren litroekin kompensatu itenak. Bakorrena ez dau ematen izan, ez bada ze bezero gaitien batera. Hori ondo egiten izan dan.

Zuen ustez zer da hobea, jeneron denden bidez saltzea, ala zuzeneko salmentan bezeroari

J- Zuzenean saltzea beti ka-ruago da. Baina ezatebaterako baserriko esnea, zergatik ez da

kigu balia, giti saltzen da. Edo kolpea dutekon esnea ez jakelako komeni butzari, edo andra-gizo-nak biak beharreen diagozela eta eme-saltzaileari begira egon be-harreen dendara jau eta errezu-goa dala erosten... dala dala gita saltzen da. Hori batenik, eta bestetik prezio aldetik gotsa da produktino handie dauken kin kompetidutea. Jendeak dituari asko begiraten deitso, nahiz eta igual gure jenerue karutxago zara gaitik sinuogoa izan.

K- Denda handieri saldu ez-ke to berriz, salmentea aseguru-tuta duteko, a. baina euek ipin-tzen dabe prezioa. Eta prezio latsagarriak ekeintzen dabez as-koan Erorkik eta hoiakoak.

Ze egoeratan dagoz inguruko plazak, Lekeitioko esate bate-rako?

J- Lekeitioko plaza bapetzan dago. Markinan be antzera. Lea-Arribain Ondarruko plazan dago mobimentu handiena.

K- Lekeition, badakizu, guz-tea dala dendara, hon dala daukozu bertan. Gero, jateko modua bera be kambiatu egin du dala, ez da lehengo moduen ta-pikakorik eta hainbeste jaten. Sarrian egon nait begira karko iladan eta uskok ez daron "fun-damentozko" janari bit bera be, edo kaka-kolak edo saltzitsak, pakeroke pasua prijiduek... Asko kambiatu dire olatuak.

Eta ez dozu aste Lekeitinko plazari heste itxura bat emonda edo propaganda eginda, jende gehiago juango litzakela?

K- Ankeru usko be ez aikit nik dagoen erosteko. Pasa den udan egin ebezan hiru plazako edo azoka berezi, eta hau ordun'

jende usko dantetarako egoten da eta...

J- Baina hantse be saldu zen-bat egiten da ba'. Hamar plaza-ko espezial eginda be ez litzako salduko seguruenan hamar bese-rrik hartutako frutza, eta hari ez da usko, ehi. Ni konbenzidato naiz jendea plazara ekarria kos-tako litzatekeela. Lekito berez be ez da plazazalea, eta ganera bi-zimodua usko kambiatu da.

K- Hara, lehen giputa usko egiten zan Lekiton udan. Euz-azagun-azagan, giputiek, Eibartariek ru, askoz bidore gehiago ematen euzen ortuko je-neruari. Jenerue ikatu be Ondarrun ez deusko egiten, eta Lekiton harrez kaja osoa erre-kistatu, hari ez dakit zergaitik dan.

J- Ondarrun ondo salduen da, merezi dan jontzak. Baina han be beste hamar juango balira nik beste sartat eranda, kontuak izango litzakoz saltzeko...

Zelako etorkizuna ikusten deu-tzazue Lea-Ibarrako baserriari?

J- Badaoz gazte hartzuk baserri-rik hizi nahi dabena, eta ni pot-ri'. Baina ez dabe bizi modu erreza eukiko. Lehen ez zan ego-ten baserrian gora-beherarik 50 urtean be, baina orain alde han-diegia dago baserriko irubaziu eta tailer bateko suelduen arte-an. Eta gazte bat beti usku bada tailerrear beharreen, lagunekin urtetan eta... horrek ez dau gau-durik edo ortuaririk eukiko, nahiz eta baserriun geratu bizi-tzen.

Maribi Ugarteburu

*Galdera bat egin deusegu lagun honeeri,
inkesta modura geuretzat baliogarri izan daiten hilde batez.*
ZER GUSTATUKO LITZAKIZU JEURT ERREBISTAN AGERTZEA?



Asentzio Laka

61 urte, pelotazalea, MENDEXA.

Beste zeozer be pentsatuot baina nahijau neuke pelotien gain
zeozer ipintzie. Batzuk lehengo pelotie gaxao zala ongo pelotie
baino diñue, baina neuk bestera pentsetan dot. Horroxen
gaxerako gai bat gustora leiduko neuke. Lehengo zageruk edo
atxelarijek zortzi kuadrotik aurrera ibiltzen zien, sa gaurkuck 10-
11ap dabiz. Orain dala gitxi Artetxe eta Beloki ikusi genduzen
pelotiek eurtz dominaute. Pelotarijek pelotie dominau beldarrien
pelotiek pelotarije dominaute. Han danak ez dale onartuko
barea, nik neure eritzijs.

Iratxe Txurruka

23 urte, tabernaria, AULESTI.

Anuntziokak eta, ba, salmentak eta lanak eta holakoak.



Jose Angel Uberuaga

36 urte, eskultorea, GERRIKAITZ

Euskaldunoi egindako azken erasoak ikusita, adibidez nola
EGIN zarratu dabean eta, erreportaje bat egin, euskal egoera
azteratz eta informazioa zabalkuz, euskaldunok iratzari eta
bat egia dezagan oraso hasen aurka.

PERU

92 DA

Peru ta morroia jua ziran egun haren basara egarretan. Ta Peru au ebillen baruz bera. Igertan yakoi buruan zezoz ebillena. Eta esan eutsan morroiak ze.

Peru, ze, guur motei edo, zer jaroten yatzu, ba?

—Ba ba, buruan sartuta zauru niri emaziak ezte astala asko gura. Ta gura neuke jakin orise, zigur, gura deustan eblez deustan gure Marisek.

—Bai e? Ba on jakin giteke ba.

Baiña zela baiña, ziguratadaz zelan? Nik gura neuke jakin ba.

—Ba eguz neuk esaten deatsudana, ta ikingo dizu. Zeuk entzungo dizu berak zer esaten daben. Ba egingo doguna da, zu aurre egur-tortien buruan sartu, da tapau-tapau eginga eguzgo zarienez egunekin, ba jirok ezta jakingo an zelaizatik, ta neuk entzungo zaitu lepuan etxera, ta an itako del beian, ta esango de-atsu Marixeri. "Marixe, ezatikoz asko zer pasau da?". "Zer ba, zer pasau da ba?". "Peru il da".

—Bueno, ondo da, ondo da, egin ordan orise.

Esan da izan. Ertan ehan morroiak egur-tortien buruan, ta eldu zanien esara izi ehar beian, eta esan eutsan Marixen ze.

—Ai, Marixe, Marixe, eztaiziz guur ze jazo dar.

—Zer jazo da ba?

—Ba Peru il da.

—Peru il? Bana zelan, ba? Baiña sano jua nan gizona, baiña zer eble da edo zelan zara da ba on? Ta ezta berbaak aurretik egin eble ezta ezte esan?

Bai, esan deust ba gauza ba.

—Ta zer esan deust ba?

—Ba buk alkatogaz ezkontzeko.

—Ere. Gure Peruk on esan.

—Bai, bai. Orise esan del at.

—Ta zer dituzu ba, morroia?

Ba zeuk gura badozu, Marixe, es prest nago.

—Ene! Ba onduan egin biako dogu, ba. Anbat ariben ordan. Anbat ariben ipitiko citugu geure eztegnok. Ta Peruk on entzun ebanuan, egur tortien buruan.

Ai, Marixe, Marixe, on izan da zuk gura izan deustan guzte!

Ta Marisek erantzan eutsan:

Nik, Peru, asko be asko gura de-atsu, asko be aske. Ba prestau egize ba zerbit garako deatsudare gura ezteatsadar morroiaz be ezkontzeko, be prest egon naz zate esana egitean.



Yeri Ibarrola, "Cuentos Vascos". G. O. U. B. A. S. C. I. E. 93803

XABIER AMURIZA, idazlea



Bai, bai, ze liburu mordo bat idatzi judadaz. Idazletzat hartu beharke just neure liburua. Bertsolaritzari buruz lau, bust edo sei, nobelak be bai hiru bat... dizona batetik gora bai.

Ni ez nok izan oso idazle saldua. Liburu bat aipatzekotan. «Hil ala hizi»ren bigarren edizioa, antzina atara genduan, ni kartzelan pengoala eta holako ezinez eta klandestinitatez. Nahikoa saldu zan baina askorik ez.

Bertsolaritzakoak. «Hiztegi erriatua». «Bertsolaritza, hirza ren kirol nazionala». Gero holako «Menditik mundura», erdi poema, bertso eta holakoak...

Xabier Amurizak ez dau aurkezpen handirik behar, Lea inguru honetan danok ezagutzen dogu eta.

Ordu bi edo handik gora beragaz egon gara, eta jakina, esan deuskun beste kontu ezin dogu orri bitan sartu. Horregatik bada, idazteari buruz eta idazle izateari buruz esandakoa papercratu dogu. Xabier idazlearen eritzia doa, beraz, irakurlearengana.

Ez nok ni asko saldua izan, eta jendeak idazle baino gehiago bertsolaritzat hartzen nau. Orduan, ba, hor apur bat, ez bata ez beste osorik. Baina idazlea nuk eta orain be bai. Egunkaritan eta abar. Eginen, itxi deuskun arte. Semaforo Gorria egiten izan dot, lehenago Artazu Baitza eta abar. Idatzi, nik beste idazten dauanik egutero gitxi egongo dira Euskal Herrian, baina beste gauza bat da liburu-tarako idaztea.

Semaforo Gorriako idatziakokoa be bajkont esperantzi holako selekzio bat edo egiteko.

Libururik gustokoena. -Gustokoena bano inportanteena gehiago. «Oromendiarrieta» izenekoa. Hori ez jok hori inuk e urten ebanean sari bat irabazi naujan. Kritikak batzuk oso deskalifikatiboak eta beste batzuk ulertu be ez eta apur bat baztertuta gertu dok, baina nire beharrik inportanteena hori dok eta orain ba 17 urte edo 18 badituk hori idatzi nehalta eta hori dok, erdi nobela erdi sarakera gehiago. Orain erderara itzultzen dabiltz, altemanera be bai, eta gertatuko dana zera da.

beste hizkuntza batzuetara itzultzen dabenean ba, ene, hori bemen da hal. Ba begitu, hori bemen egon da 18 urtean, mork ez deitso inportantzirik eron eta gainera zirkulaziotik be erretira tuta jaak, bano nire liburuan inportanteena horixe dok, baina be mengo kritiko eta zerak ba.

Nik uste just euskal literatura zerean jendea, hau apur bat tximeleten kulturea dok, Apurba gauza sendoa eta zozter pentsatu eragiten dauana eta, ez da gura.

Jendeak ondo pasatzeko gauzak gura jozak, gauza entretengantik, bitxiak, kaspoan egiten diren imitazioak eta abar... Pentsatu eizue, Atxaga izateko gure erreferentzia nagusia, eta Atxagak pentsamendu moduan ez jeukok tximeleta batek bano pentsamendu zet gehiago. Idazle polit bat izango dok baina...

Hor barruan, kritika mundua eta jagek kamarillatxo baten esku. Erdi lehenagoko Euskadiko Ezkerrako filosofia usain horrek domnatzen dau eta beste askok ez deuko hor sarbiderik baina hori ez joak inora. Horregaz ezin joagu ez hizkuntza nazionalik ez literatura nazionalik egin eta pentsamendu nazionalik gitxiago. Orduan ba, nire liburu hori, «Oromendiarrieta», planteetan

Jirap idea eta tesis batzuk eta inork ez jozak aintzat hartu. Baina etorriko dok aintzat hartuko dan eguna.

Euskeraz irakurri.- Bai, euskeraz gero eta gehiago irakurten da ze batez be eskola, euskaltegi eta abarretan irakurtea obligazio izan ipintzen dok, ezok! Ordon ba gero eta gehiago irakurten dok eta une gehiago eta ikasle gehiago euskerazko ereduetan eta abar, eta orduan euskeraz irakurri egiten behar da, gero eta liburu gehiago egiten dok.

Dana dala ni, horrek asko irakurteak, ez puztek asko eta giti irakurten daben aduna, nahiz eta inportantea dan. Zein mailaran eta ze sakontasun bez edo zein kritiziaz irakurten dan da garrantzitsua. Denbarran pasetako irakurten bada eta, askotan euskeraz be irakurtetara izan behar joki. Jenaq ulertzeko modukoa, eta azkenean esatez. Eta orduan nik nabari jozok 10 irakurte sendu joo irakurte tximele: baina.

Bai, liburu gehiago egiten bada, hau gehiago irakurten danaren seinale da. Baina oso irakurle azala dala, superficiala dala usn joz euskal irakurlea, bape kritiko ez dala. Idazle baten zera erorten bada, ha danak haixe erosten jook. Atxagak egiten badau danak haixe erosiko jook, akademiako eskoletan eta abar. Zelan marketen datorren, haixe. Beste hizkuntza hartzean be gertatzen da, baina euskal irakurlea azala da.

Hori alentzeko burua behar da. Tximeleten herria barik burua. Tximeletak direkzio barik ibiltzen dira, ez jookuk direkzio konkreturik. Baina neguan pasetan diren txoriek bajeokuk direkzio bat, danak direkzio bat, ez bakarrik hizkuntzetan, bai planteamendu nazionaletan be.

Tximeletak koloretan eta politak badira, baina ez danz inora. Baina hegaztuak deukon orientazioa falta joko gure herriari. Hizkuntzan, politikan...

Behar dala irakurle sendua da. Lehen esan duetan liburu horretan, orain aleanera itzuliko da, gainera neuk eskatu barik, handik etorri da eskaria eta. Han inpor-



tantzia emoten deute, erderaz be bai, a liburu hau sorprezentzen da eta abar. Ba begira, baina Euskal Herrian 17 urte dagoaz eta inor ez da sorprendidu, ez da aintzat hartu, erretiratuta dago zirkulaziofik. Zelan izan leike hori? Halaxe, tximeleten herria gara ondino.

Sakotasun giti ikusten joo nik. Azken batean alfabetatzeko liburuak idaztea, edo euskeraz irakurteko gaiak eukitzeko edo idazten da, baina azken baten idazten dauanak ideia batzuk edo behar dauz, ideia esteriko batzuk edo. Euskeraz literaturaren kritika horretan egon dok halako ideia-fohia bat be. Ideiarik, ideologiarik ez da behar. Eta hain dok ideologiarik karkasnetariko. Ze azken

baten, Atxagaren «Gizona here bakardadean»-en ez badago ideologiarik, esandak non dagoen, Ajuria Eneako paktuaren nobela bat izan leike eta. Ez dagoela ideologiarik? Egongo ez dok ba ideologia! Hemen ideiarik ez dala behar esaten danean dok aporbat, idea nazionalik eta ez, horrek superatuta dagoz. Ba,

nungo iderak eta nungo nazioa edo nungo unibertsoa sartu behar dozue ba? Nik aste joo ospahilatuko gure-ala eguaren bater, baina oraindik literaturan ez.

Orain idazten?- Orain nabarik egiten bertsoaritzan buruz neure mundualdia, bertsoaritzatik hartuta, eta horrek inguru handia hartzen jook. Beste gauza batzuk be bai.

Ez da biografia, ba ba neure testigantza edo lekukotza bat emen bertsoaritzatik ikusita neure eholuzioa eta zhar. Eta horren barteau bizi izan daban mundualdi horren barri emon eta zhar.

Bertsu inedita asko jookat gainera eta orduan hori egitea nabarik orain. Gero egingo joo beste bat neure denborearen testigantza bat emoteko, eta honek abaletzako denborea eta hartuko dauz. Kontatu neuk zein bizi izan neban, ze eholuzio izan dan eta abar. Bigarren hau zahalagoa izango da. Eta planuk asko bunnan.

*Amaia Onaindia
Jabi Onaindia
Anaia Urquien*

Oraingoan Manuel Uriarte, Aulestiko Zuberouriartekoagaz egon gara kontu-esaten. Aurretik izan dogu entzutea Manultxuk gaztetan pelotan polito egiten ebala eta horrexegailik horreratu gara beragana, hainbat eta hainbat kontu esan deuskuz sasoi bateko pelotazaleez.

ASPALDIKO PELOTARIAK

Berak dinoenetik egin geinke kontu, hemen gazte asko zirela frontoian habilak. Bere gomutan izan diren gehienak aitatu ditu, 1950 inguruan ibilten zirenak, zahartxoago zein gaztetxoagoak. Izan leike haeren bat ahaztu izana, baina akordatu bere asko egin jakozalakoan gagoz. Ikusiko dozun moduan gaur egunekoak, ezagun ditugunak ez dira aintzatzen. Ina nakurleak zer eretzien dotsezuen.

Palaz. - Palazkoetan Inaki Ulazia juorko burura, Modesto Perea eta Leon Katxmena gazteago tan eskuz eta gero kanpoan palaz jokututakoak. Kornelio Perea, Legarreko Pedro zana.

Zestaz. - Munduko onenaren entzutea ei eban Antonio Unanue «Telletxek»

Eskuz. - Juan Lexarra eskuzko pelotari ona zala dino, arren behar ebana. Aboltiz eta Korta. Ichenengorako bestekook igul ez, baina bigarreneko onegiak.



Manuel Uriarte. 1938 udan

Honeek Ondarroan Gallastegiaz jokatu eta, jentea beronen alde egon arren, aulestiarrek irabazi ei eben.

Herriko hainbat gizonezkoren izenak akordetan jakoz, beti frontoan ibiltzen zirenak: Jenaro Kastillo, Juan Etxeasu, Julen Katxinenekoa, Segundo Ubila, hau ontzat jotzen dau Maximo Artako, Jazinto Zurrabenta, Iñaki Kortaa... eta Manultxa bera, jakina. Iñaki ona ei zan, hama dirua jokatu ezkeri estute edo, . hobea ei zan jokorik egin barik.

Saso: batean, jokoa geratu barik. Beuetako jokoak, azkenean hasaratu eta hartuta here barden, haina jokoa amara, pelotan bakarrik barik puztuan, palatikan, trintzan, behu pelotan, karga jostan, karga-erosten, gizon-proban, . zer ez! Dana inlar kontua.

Behin Manultxak Segundo Ubilari jokoa egin ei, eutsen, hogena hogertekokoa Urtea 1956a ala 1960a ei zan. Segundo esku biekin eta Manultxa esku-mezagaz, eta esku bakarrekokak irabaz, Mariano Nabarrezkoari here egin ei eutsen beste joko hat. Aulestin Manultxuk irabazi eta Nabarnizen Marnok; hantxe itxi ei eben.

Venezuelan izan zan sasoin bere, 1951-1960 bitartean, S6an etortaldi bat eginia, itonekero jokatzan ei zituen luango Centro Vascon Zaranzko Uzelai anaiak, Todor Etxarte, Juan Kortaa, Antonio eta Jose Angizegaz. Antoniek eskua outa ei eban.

Bera gaztetan pelotazale handia zala diuto. Jose Goñiandiagaz Oletara, Markinara edo dana dala-ko lekura joan sinez eta, nondik handik, beti partidua asmatu behun. Jausti abarketak baztanera eta jokatu.

-Ortozik?!

Abarketak nua egoten ziren ba?

Maribi Unamuno



**Manultxuren denboretan
mutil gazte guztiak
ibiltzen ziren frontoan.
Euren habilitade eta
desafioak ondu geratu
dauke.**

Joan dan urteetatik Musika Eskola martxan dago Aulestin. Hasieran Aulestiko umeak eta 1995etik Muntibarkoak bere etortzen dira, guztira berrogeiren bat ume dabiliz solfeo, flauta, akordeoia, pianoa eta beste musika fresna batzuk jotzen ikasten.

Urtean behin kontzertu bat antolatzen da eta bakoitzak ikasi dauana jotzen dau bertan, kantua bere lanzen dabe.

Onera umeak eurak eritxia azaltzea izango dalakoan, Maitane, Maider eta Maddalenengana jo dogu. Hara zer dinoen.

ESKOLA

AULESTIKO

mu
S
I
K



«Handia izaten nairenean igul etxean joko dot baira ostartzean eta (Maddalen ikazurriaga, 7 urte).

- Solfeoa ikastean apur bat gogaitzen dogu, ikasi arte, gero jardu ondo. Flauta gustora joteti dogu, eta Maitanek organoa. Lehenengo «Aterria, azerria kanpaitzua dalmian» ikasi genituan eta dainu asko dakiguz: «Clavellito», «Lan eta lan», «Errekan plisi plisi» eta lanok batera jotzen dogu batzuetan. Etxean askotan jotzen dogu flauta eta asmatan bere ibiltor gara, udako oporetan gixitxuago jotzen dogu.
- Flautak amak erosi euskuzan eta organoa Anderrek itzi deust.
- Hurrengorako Zorionak jotetu ikasi nahi dogu, Nolan urteetan eta lagunero joteko kumea.
- Solfeo eta musikara joatea gustutan jaku, lehenengo egunetan ordurantz gogo handiena, gero apur bat gogaitu egiten dogu.



«Handia izaten nairenean ez naiz musikara izango, ez dakit zer izango naizen, igul landetan urtebetar eta joko dot» (Maitane U-berruaga, 11 urte)



«Handia izaten nairenean igul apurra egingo dot musikara izareko, akordeoia edo eteko, baina ez dakit» (Maider Bengoitxea, 9 urte).

HIRUGARREN ADINEKOEN ALKARTEAK

Lea Ibarreko bost Udalferri txikietan hirugarren adinekoak zelari antolatzen diren azaldu nahi dogu datu honeen bitartez, informazio hau Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoko Gizarte Ongizateko teknikaria den Izaskun Lezea andrearen laguntasunaz batu dogu.

Hirugarren adineko alkarte hobe-etarik Auletzeak dauka bakarririk lokal propioa, besteak Udalarekiko lokaletan batzartzen dira.

Kultur eskaintzak

Herririk batzartzeko alkarteak, bere aldeetik antolatzen dituz kultur bidaiak eta ekintza batzuk (txariak, bazkariak, bidaiak...) eta horrez gainera Lea Ibarreko antolatzen diren kultur ekintzetan be parte hartzen dabe bost herrietako alkarteak.

Zerbitzuak

Zerbitzuak eskaintzeko orduan, herri txikietakoak lokalik ez duten orduan eta aurrekontuak murriztuak izanez, beste herri batzuetara jo behar dabe.

Bost herri honetako adineko pertsonak orain lekuak Lekeitzoko hirugarren adinekoen Alkarteak eskaintzen dabezan zerbitzuak, urteroko kaota ordainduz gero. Zerbitzuon artean psikologia, ita-paindegia eta jatekoa dagoz. Gainera, Lekeitzoko hirugarren adinekoentzat antolatzen diren beste ekintzetan be parte hartu ahal dabe (ikastaro, kultur bidaiak, txariak, eskulana tailerrak...)

Auletziko hirugarren adinekoen tokalean podologia egoten da hilean behin.

Alkarteen funtzionamendua

1997. urtean Amoreto, Aulesti, Mendexa eta Munitibarko hiruga-

ren adinekoen alkarteak euren funtzionamendua mantentzen dabon estatutuak aldatu egin ebezan, aldaketa honen zergatia gehienbat euren izen ofizialak fidetza euki dabezailako eta euskerazeko izan da.

Barkide izateko baldintzak

-60 urte edo gehiago daukenezak eta euren senar-emazteak.

-Gizarte Segurantzako pensionista eta Jubilatuak eta euren senar-emazteak.

Karne funtzionamendua

-Barkideen Batzar Orokorra urtean behin batzen da eta barkide guztiak hartzen dabe parte. Honetarako dira bere zereginak:

- Aurreko urteko gastu eta diru sarretetaz informazioa jasotzea.

- Hurrengo urteko aurrekontuak eta aktibitateak onartzea.

-Zuzendaritza Batzordea bi hilabetez batzen da. Bere zereginak ohizko kudeaketa, ekintzen egitaraua prestatzea eta kontuen egoeraz arduratzea.

Eskualdeko antolaketa

Amoreto, Aulesti, Bolibar, Berriatua, Etxebarri, Markina, Mendexa eta Ondarra herrietako Hirugarren Adinekoen Alkarteak (U.D.P. Unión Democrática de Pensionistas y Jubilados) estatu mailako alkarteak antolatzen dabezan ekintzetan (bidaiak antolatzea, lorea antolatzea dabe urtero), eta

DATUAK HERRIKA

	60 urteik gorakoak	Alkarteetako barkideak
Amoreto	105	81 (9677,14)
Aulesti	215	137 (963,72)
Gizaburuaga	52	Ez dago Elkarterik
Mendexa	98	62 (963,26)
Munitibar	129	105 (981,39)

batzartetan hartzen dabe parte. Berriatua laguntzen berriz ematen da. Bi hiletik behin batzartzen dira Markina.

Amoreto, Aulesti, Euzarri, Ipazter, Lekeitzo, Mendexa, Munitibar eta Ondarra herrietako Hirugarren Adinekoen Alkarteak Lea Artibarko Hirugarren Adineko «Itas-Baserria» Alkartea sortu eban ofizialki 1997 urtean, duela sei urte inguruik batzen dira bi hiletan behin Gizaburuagan.

Elkarte hae sortzearen arrazoiak, beste batzuen artean, Bizkaiko Foru Aldundian, Eusko Jaurlaritzan eta estatu mailan (Inserso) udar handiagora izatea da. Laguntzak eskatzeko edo eskualdeko hirugarren adinekoen arazoak eta beharrezkoak konpontzeko orduan, garrantzia, osasuna, etxez etxeko laguntza, zaharren egoitzak eta abar konpontzeko orduan.

Era berean, kultur arloko ekintzak be antolatzen dabe: tailerrak, erakusketak, ikastaroak, bidaiak, ekintza gastronomikoak (uzarmitako txapelketa...).

Alkarte honetarako, beste gauza batzuen artean Lea-Artibarko Mankomunazgokoa hirugarren adinekoen kateilua (politiko, tekniko eta hirugarren adineko alkarteen barkideak eratua) sortu ditzen eskatzen da.

Aranza Ugartebaru



Lea Ibarrean, Bizkaia osoan lez, orain dala hamarkada gutxi arte sagardara zuzen edari nagusi eta ia bakarra. Gure eskualdeko motelan sagarrondoak barra-barra egozan. Hartu dagigun datu soil bat konturatzeko norainoko sagar-tradizinoia egon Lea-Ibarrean. Orain dala 40 bat urtera arte Gizaburua gako baserri bakoitzean host bat mila kilo sagar hartzen zuten harenaz beste.

Datu hori emon deuskuenak frutazainak dira, Jesus Zabala eta Klaudi Goikoenxeu gizaburutarak. hain zuzen be. Goikoenxeu baserrian 300 bat sagar-arbola dauke, tartean konserbatu dabezan arbola zaharrak. Erreinetea, bost kantoiak eta goldena ei dira, akle handiaz, gehien saltzen diren sagarrak. Sagarrak txikiak edo apur bat pakatuta dagozenak bideratzen dabaz sagardotarako, eta beste guztiak gordinerako saltzen dabe. Sagarrak zainketa asko es-

kutzen dan Klaudik eta Jesussek esan deuskuenez, «poztuko nintzake tratamendu hartik, lehenengo nothien hartuko balitz». Arazo gogorak daukez beste frutazale askok lez, saltzen dabezan sagarrondo barriekin, kontatu deuskuenez «orain dagozen sagarrondo barriak urte birako gaitotuta dagoz, sagar txikia eta gusto eskasagokoa emoten dabe».

Frutazainak kezkatuta dabiz, beraz. Halan da be, badago itxaropenerako motiborik. Azken urteotan Bizkaiko sagardau produkzioa eta kontsumoa igo edo berpiztu egin dira. Eta horretaz Laneko Kooperatibako Aitor Itxaurragari itaund deusugu.

Lanekok hiru urtetan ekoiztu dau sagardaua, 70.000 litro dala arte hiri, eta 15.000 lgez izan be. Bizkaiko sagarraz egiten dabe soil-soilik sagardaua, eta ia dala Lea-Arribaikoagaz. Eskualdean 20 bat sagar-produktoreri erosten deusie fru-

tea. Aitor Itxaurragari itxaropentsu ageri da. «plantazio barriak egon dita era tendentzia da sagardauen kontsumoa be igotekoa».



Beraz, horuk etorri leike sektorea indartzea. Baina horretarako inportanteena jendeak sagardaua edatea da...» Badakizue, ha, aurtengo uzta fresko eta guzua botiletan dago, bitzetan hizi-hizi danok iruntzi zain.

Bertoko hazi-hazi edari naturala indartzea danoa esku dago. On egio!

Maribi Ugarteburu



ARTELATZA

Quercus suber

Alcornoque

Adaburu zabal eta tamaina ertaineko zuhaitza, altueran 25-30 metrotarainokoa. Enbor lodia eta azala hasieran leuna eta hauskorra, gero adinarekin oso lodi, arol eta zartatua, kortxoa bihurtuz; kortxoa aprobetxatzen denean, enborra kolore gorri iluneko geratzen da. Adaskak eta begiak pubeszentek edo tomentudunak dira. Hostoak larrukarak, iraunkorrak, obatu eta luzanga bitartekoak, 2,5-10 x 1,2-6,5 zm. takook, gainaldean berde ilunak eta glabreszentek, azpialdean tomentu hauskaraz estaliak, 5-7 nerbio sekundario pare dauzkate, ertz sinuatu-horztuna eta txorten tomentuduna, 20 bat milimetro luzekoa.

Gerba arrak 4-8 zm. luzekoak, meheak eta etenunetik gabekoak, kolore horiska eta erraki ileluzea dutelarik, adasken puntatik kopuru aldakorrean zintzilik; loreak oso txikiak eta hauen perigonioko 5-7 piezak obatuak eta ilelunak. Lore emeak barka edo talde txikietan, beren 3 estiloak laburrak, oinetik dibergenteak eta erreflexuak. Glandea 20-45 x 10-18 zm. bitartekoa, heldutasunean gaztain-kolore gorriskakoa; kandua zurruta eta tomentuduna, 5-40 mm.koa; karloa 10-20 x 12-25 mm. bitartekoa, ezkata grisetska-tomentudunez hornitua, goialdekoak punta arkutu edo subreflexu batean luzatuta daudelarik.

Apiril-maiatzean loratzen da, nahiz eta batzuetan uda barneraino iritsi loraldia. Ezkurrak urte bereko udazken edo neguan heltzen dira gehienak, azkenekoak hurrengo udaberriaraino atzeratuz.

Eskualde mediterraneo eta mendebal-atlantikoetako espeziea da berez, itsasoaren eraginez gozatutako klima duten lekuetan bizi ohi dena; dena dela aintzinatik kultibatua izan denez, zaila da bere jatorrizko banaketa-arearen erabakitzea. Aukeran substratu silizeoak hartzen ditu, zoru harro eta iragazkoerak, noiz edo noiz marga eta karari ikuzietan azaltzen bada ere. Euskal Herrian kostaldeko muinoak zaplastatuz aurkitzen da. Armintzatik Bizkaiari hasi eta Aturi ibaiaren bokaleraino, bere banaketa-arearen ipar-mugaraino ia iritsiz; ez da eratzen baso mardulik, soilik zuhaitz-unadak han-hemenka; erakuskari ederrenak Zarautz-Getariako eta Aturi ibaiaren bokaleko zonetan ikus daitezke.

Artelatza ugari dagoen lekuetan ohiko lanbidea izaten da haren azala kortxotarako aprobetxatzea. Alde honetatik, garrantzi handia dauka Penintsula Iberiarreko hego-mendebaldeko koadrantean, bertan estaltzen dituen sail handietan (dehesa deituak), usara honetatik aparte, txerri-aziendak ezkur-larrean mantentzen baitira; eta honen ezkurra artearena bezain gustokoa ez badute ere, urtearen parte handi batean daukate janaria prest, arbola honen fruktifikazio-aldi zabalari esker. Kortxoaren ordez material plastikoak indarrez sartu diren arren, beraren zenbait ezaugarri ez dira batera imitatzeko errezak eta geratzen zaizkio oraindik hainbat eta hainbat erabilera zipotz, material isolatzaile, oinetako eta abarren industrian.

